



## Eskolako CONFINT konferentzia

**Ikastetxea:** Lauro Ikastola

**Herria:** Loiu

**Lekua:** DBHko Plastika gela

**Ordua:** 11.15-12.15 eta 13.25-14.00

**Bertaratuak:** DBHko 2030 Agendako ikasle-ordezkariek

**Gai-ordena:**

**1. Ongietorria:** IRAES 21 taldearen aurkezpena, Eneritz, Arhanek, Begoñak, Ametsek eta nik, Luziak, geure burua aurkeztu dugu. Confinta zer den eta Ikastolako Confintaren helburuak azaldu ditugu.

**2. IRAES 21 bloga erakustea,** Lauroko parte-hartzea azalduz. Aurreko ikasturtean Euskadiko Confintean parte hartu zuten bi ikasleak, Martinak eta Araitzek, euren esperientzia azaldu dute. Ondoren, 2025eko Euskadiko Confintaren manifestuaren irakurketaren bideoa ikusi dugu.

**3. Ikasturte honetan landutako arazo ekosozialaren azalpena eta orain arte egindako lanketa azaldu dugu:**

- Biodibertsitate hurbilarekin harremana duen arazo ekosozialaren aukeraketa.
- Egindako diagnostikoa eta lortutako ondorioak.
- Arazoari irtenbidea emateko alternatibak azaldu ditugu eta beste hainbat ere komentatu ditugu, zein alternatiba egin ahal ditugun guk arazo ekosoziala konpontzenko.
- Hautatutako bi ekintza eraldatzaileak:
  1. Gure ingurunean bertoko zuhaitz espezieak landatzea.
  2. Arazko ekosozialari buruz informatzeko kartelak egitea. Asanbladan azaldu dugu DBHko 1. mailako talde batean, Plastika arloan, arazo ekosozialari buruzko kartelak diseinatzen hasi zirela.

**4. IRAES 21 taldeak hautatutako bi ekintza eraldatzaileen inguruan eztabaida guneak antolatzea:** konponbidea, parte-hartzea eta bideragarritasuna.

Asanbladan hiru talde antolatu ditugu, DBH 1eko ordezkariek, DBH 2koak eta DBH 3-4koak. Talde bakoitzari ekintza eraldatzailea adosteko (konponbidea, parte-hartzea eta bideragarritasuna aztertzeko) orria eman diogu eta euren artean hitz egiten, eztabaidatzen eta erabakitzen egon dira.

12.15ean bazkaltzera joan gara eta arratsaldean jarraitzeko geratu gara, 13.15ean.

5. Gune bakoitzean erabakitako emaitzak azaltzea etsa denon artean ekintza eraldatzaile egokiena aukeratzea.

Talde bakoitzak bere erabakia azaldu du, arbelean taula osatu dugu eta denon artean ekintza eraldatzailea erabaki dugu. Adostutako ekintza eraldatzailea: Gure ingurunean bertoko zuhaitz espezieak landatzea.

Bestetik, DBHko 1. mailako Plastika arloan, arazo ekosozialari buruz diseinatzen hasi diren kartelak egingo dituzte bi helbururekin; alde batetik, gaiari buruz informatzeko, eta bestetik, landaketa kanpaina egiteko ere erabiltzea.

Ekintza eraldatzailea burutzeko planifikazioa egitea. Gai hauei ikertu eta antolatu behar ditugu:

1. Non eta noiz landatu.
2. Beharrezko materialak.
3. Zuhaitz espezieak.
4. Landatzeko baldintzak.
5. Baimenak eskatu.
6. Publizitatea egin (kartelak) eta bolondresak eskatu.

Aste Santuko oporrak eta gero jarraituko dugu.

6. Euskal Confinterako ordezkariak hautatzea. Hautatutako Eko-lider eta ordezkoak:

1. Eneritz Mallona
2. Luzia Llorca
3. Amtes Fernández
4. Begoña Escudero
5. Arhane Font

7. Hartutako erabakiaren laburpena. *Gure ingurunean bertoko zuhaitz espezieak landatzea* da erabaki duguna. Ingurunea zehaztu behar dugu, Ikastola edo Loiu herria izan daiteke. Horren arabera, dagokionari baimenak eskatu eta planifikazioa aurrera eraman.

8. Ikastolako Confintaren agurra eta talde-argazkia.

Konferentziaren argazkia deskargatzeko esteka:

[https://drive.google.com/file/d/1Qc5Vmq8j94Mq\\_ZVgr7WslkKjkBXsFaku/view?usp=sharing](https://drive.google.com/file/d/1Qc5Vmq8j94Mq_ZVgr7WslkKjkBXsFaku/view?usp=sharing)

Albiste lauro2030agenda webgunean:

<https://www.lauro2030agenda.eus/vvv#dataItem-mnwymvid>